

2. GAIA: “Jaraunspena eskuratzeko etapak”

I.-ARAUDIA

Kode Zibila

Erregistro Zibilari buruzko Legea

Erregistro Zibilari buruzko Erregelamendua

Prozedura Zibilari buruzko Legea

II.-JARAUNSPENA ESKURATZEKO ETAPAK OROKORREAN

Ikuspegi teoriko batetik abiatuta, sei etapa bereiz daitezke oinordetzaren zikloan, baina, praktikan, askotan batera gertatzen dira. Beraz, kontzeptuen maila hutsean baldin bada ere, bereizi behar dira:

(1) **Oinordetza irekitzea:** pertsona hiltzeak sortzen du eragin juridiko nagusia, bere *oinordetza irekitzea*. Pertsona fisikoa (kausatzailea) hiltzean irekitzen da beraren oinordetza; momentu horretan, ez lehenago eta ez beranduago (*viventis non datur haereditas*), eta hildakoaren erlazio juridiko transmitigarriak jaraunspen bihurtzen dira orduan, titularrik gabe geratu baitira. Orduan hasten da oinordetzaren etorkizuna bideratuko duen prozesua, erlazio juridiko haietan hildakoaren lekua nork hartuko duen erabakitzeke.

Beraz, kausatzailea noiz hil den zehazteak badu garrantzia oinordekoak izendatzeko (KZEKO 758.1 eta 766. art.ak). Erregistro Zibileko heriotz-ziurtagiriak zehazten du pertsona noiz hil den (EZLKO 81. eta EZEKO 290. art.ak). Pertsona absentzia egoeran badago eta hil dela ezin bada ziurtatu, heriotz-deklarazioak zehaztuko du noiz hil den pertsona (KZEKO 195-197. art.ak).

Kode Zibileko 40. artikulua dio hildakoaren *ohiko egoitza* ere zehaztu beharko dela, oinordetza non ireki den jakiteko; legeak besterik adierazten ez duenez arau orokor hori aplikatu behar baita. Arau bereziak ere ematen dira zenbait kasutan (KZEKO 689, 718, 727,

747, 1008, 1011 edo 1014. art.ak). Prozedura Zibilari buruzko Legeak erizpide berbera aplikatzen du jaraunspenaren inguruko arazoak epaitzeko epaile eskuduna zehazteko orduan (PZLko 51.1.4. art.), hau da, kausatzailearen *ohiko egoitza*.

(2) **Bokazioa**: Nolabaiteko fase 'birtuala' izaten da, askotan, hau da, praktikan modu fisiko batetan gertatzen ez dena. Bokazioa, kausatzailearen oinordetzan parte hartzeko DEIALDI OROKORRA dela esan genezake, hau da, hura hiltzean oinordeko posible guztiak zeintzuk diren zehazten duen etapa edo momentua [demagun, adibidez, bi testamentu egin dituela kausatzaileak eta biak bateraezinak direla: bokazio fasean, beraz, bi testamentu hoietan izendatutako pertsona guztiak izango dira oinordeko posibleak, baina gero, zehaztu beharko da nortzuk izango diren, azkenean, kausatzailearen oinordetzan parte hartuko dutenak]. Deialdi abstraktu eta orokor bat, beraz, lehenengo hurbilketa bat kausatzailearen oinordetzan sartuko diren pertsonen inguruan. Noski, deialdi abstraktu honek eragina izateko, deituak oinordeko izateko gaitasuna izan beharko du eta, horregatik, ez-gaitzeko kausak bokaziorik ez egotea ekartzen du (*nasciturus*-a, baldintzapeko deialdia, hilik dagoen deitua...). Deituak honako ahalmen hauek ditu: azken borondatea jasotzen duen dokumentuaren kopia eskatzekoa; bere aurretik deitu denari onartuko duen edo zapuztuko duen galdetzekoa (*interrogatio in iure*); oinordeko izateko titulua zehaztekoa (κzeko 1009 eta 890. art.ak).

(3) **Delazioa** (*sucesión deferida, ofrecida*): Behin zehaztuta, bokazioaren bidez, nortzuk duten bere alde kausatzailearen oinordetzan parte hartzeko deialdi orokorra, delazioa GONBITE ZEHATZA dela esan dezakegu: oinordeko gisa deialdi konkretua burutzen zaie bokaziodunei, guztiei edo soilik batzuei. Bokaziodunak, noski, nortasun juridikoa izan behar du eta, gainera, oinordetza jakin batean parte hartzeko gaitasuna: deituak jaraunspena onartzeko aukera duenean sortzen da, hala, delazioa (*ius delationis*-a dauka bere alde deituak, hots, kausatzailearen oinordetza onartu edo zapuzteko eskubidea).

Izenez eskubide moduan agertzen bada ere, izaeraz *ius delationis*-a ez da eskubidea, ahalmen juridikoa baizik. Titularraren onartzeko edo zapuzteko eta jaraunspeneko ondasunak babesteko ahalmenek osatzen dute haren edukia (κzeko 999.4. art.). Ahalmen juridiko hori, bestalde, txit pertsonala da eta, horregatik, komertziotik kanpo dago eta bahiezina da (κzeko 1000.1. art.); legeak aurreikusitako suposamenduetan bakarrik transmitituko da (κzeko 1006. art.).

Horrela, delazioaren bidez oinordetzara deituak daudenen esku jartzen da jaraunspena onartzeko edo zapuzteko ahalmena. Delazioa haien alde dutenek erabaki hori hartu beharko dute epe jakin baten:

jaraunspena onartu edo zapuztu. Prozesuan aurrera jarraitu edo ez. Gonbitea dute, beraz, erabaki hori hartzeko, deialdi zehatza, ezetz edo baietz esateko ahalmena.

(4) **Eskuratzea:** delaziodunak, kausatzailearen ondarearen jaraunse bihurtu nahi baldin badu, JARAUNSPENA ONARTU egin behar du. Onarpen hori ematerakoan eskuratzen du oinordetza eta soilik orduan bilakatzen da jaraunse, kausatzailearen heriotzarekiko atzeraeraginkortasunez. Ordurarte bakarrik da DEITUA. Onartzen duenetik, jaraunse bilakatzen da deitu hori. Legatu-hartzaileak, ordea, ez du jaraunspena onartu behar legatua jasotzeko. Legatua onartu behar du, baina ez jaraunspen osoa. Bide independienteak dira jaraunspena eta legatua eskuratzearenak, nahiz eta biak pertsona berean kointziditu dezaketen.

Kausatzailea hil denetik onarpena gauzatzen den arte, jaraunspena BANATUGABEA (*herencia yacente*) dagoela esaten dugu.

(5) **Jaraunspen-komunitatea:** Onarpena deitu batek baino gehiagok gauzatzen badu, jaraunse bat baino gehiago egongo da kausatzailearen oinordetzan. Hauek KOMUNITATE egoeran egongo dira herentzia BANATU arte. Komunitate horri jaraunspen komunitatea deitzen zaio. Kausatzailearen jaraunspena bakarrik deitu batek onartzen badu, ez da komunitaterik emango. Jaraunse bat baino gehiago behar da berau sortzeko. Jaraunspena kitatuko (likidatuko) da beti, baita erkidegoa ez badago ere.

(6) **Banaketa:** Oinordetza prozesu guztia banaketarekin amaitzen da, hau da, herentziaren partizioarekin. Komunitatea bukatzen da eta jaraunse bakoitzari bere zatia ematen zaio. Egia esan, ez dago banaketarik komunitaterik ez badago. Teknikoki, jaraunse bakar bat dagoenean, ez da ezer ere 'partitu' behar: dena da berarentzat.

(Ikus gaiaren bukaeran eskaintzen zaizuen eskema, oinordetzaren zikloaren inguruan).

III.-JARAUNSPENA ESKURATZEKO ETAPAK BANAN-BANAN

Gai honetan kausatzailearen heriotzarekin batera irekitzen den etapa aztertuko dugu, oinordetza zabaltzeari dagokiona, hain zuzen ere; eta besteen inguruan aipamen xumeak egingo ditugu soilik, hurrengo gaietan sakonduko baititugu.

1.-Oinordetza irekitzea

NOIZ

Pertsona fisiko baten *heriotzak* finkatzen du bere oinordetzaren irekitzea: momentu horretan, ez lehenago ez beranduago, kausatzen du kausatzaileak bere oinordetzaren hasiera (*viventis non datur hereditas*). KZeko 196. artikulua dioen bezala, kausatzailearen *heriotz-deklarazioarekin* ere zabalduko da bere oinordetza, haren heriotzaren datu zehatza falta zaigunean, adibidez, absentzia egoeratik eratorritako deklarazioa denean. Zuhurtasunez irekiko da, azken kasu honetan, beraz, kausatzailearen oinordetza, hau edozein momentutan ager baitaiteke eta prozesu osoa bertan behera utzi.

Kausatzailea noiz hil den zehazteak, orduan, badu bere garrantzia. Izan ere, momentu hori erabiliko baita oinordekoen gaitasuna aztertzeko, besteak beste (KZeko 758.I eta 766 art). Zehaztapen hau zailagoa izan ohi da bi pertsona aldi berean hil direnean: lehenago zein hil den finkatzean, oinordetza prozesuak emaitza ezberdinak eman baititzake [demagun, esate baterako, aita eta semea hegazkin berean daudela eta istripu baten ondorioz hil egiten direla. Garrantzitsua izango da oso finkatzea nor hil den lehenengo, izan ere, oinordekoa bizirik egon behar denez kausatzailearen jaraunspena onartzeko, segundutako ezberdintasuna berebizikoa izan daiteke emaitza bat edo beste suertatzeko: aita hil bada lehenengo, semea oinordeko izatera heldu da, nahiz eta segundu batzuk beranduago hil, eta bere oinordetzan aitarenean jasotakoa transmititu ahal izango du. Biak hil badira aldi berean, ez da eskubide trasmisiorik egongo haien artean]. Hori da, zehazki, KZeko 33. artikulua aurreikusten duen hipotesia: *Si se duda, entre dos o más personas llamadas a sucederse, quién de ellas haya muerto primero, el que sostenga la muerte anterior de una o de otra, debe probarla; a falta de prueba, se presumen muertas al mismo tiempo y no tiene lugar la transmisión de derechos de uno a otro.*

Bestalde, heriotz deklarazioari bagagozkio, KZeko 195 eta 196.I artikuluek kontraesan bat plazaratzen dutela aipatu behar dago. Ikus ditzagun aipatu atalok esaten dutena: *Por la declaración de fallecimiento cesa la situación de ausencia legal, pero mientras dicha declaración no se produzca, se presume que el ausente ha vivido hasta el momento en que deba reputársele fallecido, salvo investigaciones en contrario. Toda declaración expresará la fecha a partir de la cuál se entienda sucedida la muerte, con arreglo a lo preceptuado en los artículos precedentes, salvo prueba en contrario* (KZeko 195. art); *Firme la declaración de fallecimiento del ausente, se abrirá la sucesión en los bienes del mismo, procediéndose a su adjudicación por los trámites de los juicios de testamentaría o abintestato, según los casos, o extrajudicialmente* (KZeko 196.I art).

Noiz irekitzen da, beraz, oinordetza, kausatzailearen heriotz-deklarazioa eman denean: adierazpenak berak finkatzen duen datan (195. art) edo adierazpena bera irmoa denean (196.I art)? Gogora dezagun, adierazpena irmoa izan arte denbora-tarte luzea igaro daitekela. Zein da, orduan, kontutan hartu beharreko data? Kontraesana ez da hain nabarmena bi atalek diotena uztartzen saiatuz gero. Printzipioz, adierazpena irmoa deneko data kontutan hartuko da baina, atzeraeraginkortasunez, adierazpenak berak finkatzen duena izango da heriotzaren adierazle, jaiotze unearekin gertatzen den bezala (KZeko 29 eta 30 artikulua). Umea amarengandik 24 orduz banatua egon behar da eta bizigarritasun propioa eduki. Ukanbehar hauek baieztatu direnean, jaiotze data zilbor-hestea mozten denekoa izango da, atzeraeraginkortasunez.

NON

Legeak kontrakorik esaten ez duenean, behintzat, kausatzailearen oinordetza bere *azken ohiko bizilekuan* zabaltzen dela ulertu behar da. Espainiar Estatutik kanpo bizi bazen justu hil baino lehen, baina naziokotasun espainiarra bazuen kausatzaileak, orduan Espainiar Estatuan izan zuen azken ohiko bizilekua izango da gure erreferentzia. Auzitegien eskuduntza ere bizileku horren arabera zehaztuko da.

2.-Bokazioa

Atzerago esan bezala, bokazioa, oinordetza ireki bezain laster ematen den etapa bat da, nahiz eta askotan ideien edo kontzeptuen mailan mugitzen den, praktikan inolako efekturik izan gabe. Etapa honetan kausatzailearen oinordeko posible guztien izendapen moduko bat gertatzen da, deialdi orokor eta abstraktu bat balitz bezala. Eszenatokia prestatzen da, gerora, delazioaren bidez, oinordeko posible guzti hoiei edo soilik batzuei deialdi zehatz bat eman arte. Batzutan, auzipean dagoenean kausatzailearen oinordetzaren irekitzea bera, bokazioa luza daiteke denboran, bitartean jaraunspen banatugabearen arauak aplikatuko direlarik.

3.-Delazioa

Hurrengo gaian jorratuko dugu etapa hau. Orain soilik aipatuko dugu, jaraunspenaren delazioa oinordeko posiblei deialdi zehatza egiten zaienean ematen dela, hau da, jaraunspena onartzeko eta zapuzteko ahalmena luzatzen zaienean (*ius delationis*-a, hain

zuzen). Bokazioan marrazten zen eszenatokia argitzen da eta finkatzen dira jaraunspena onartu dezaketenen zerrenda. Bakarrik deitu zehatz hauek izango dute, jaraunspena onartuz gero, jaraunse bilakatzeko aukera, beraz.

4.-Jaraunspena eskuratzea

Adierazi denez, kausatzailearen ondarearen oinordekoak delazioaren bitartez behin betiko zehaztu ostean eskuratzen dute horiek oinordetza. Jaraunspena eskuratzeko moduei buruz —alegia, kausatzailea hiltzen denetik jaraunseak herentzia eskuratzen duen arteko prozesua azaltzeko—, ordea, bi kontzepzio daude (AGE 1964/6/9 [RAJ 3216]):

(1) **Kontzepzio germaniarra:** oinordetzara deitua dagoenak delazioaren poderioz eskuratzen du jaraunspena, normalean delazioa kausatzailea hiltzen denean gertatzen baita. Jaraunspena *ipso iure* (automatikoki) pasatzen da jaraunsearengana oinordetza irekitzean; horrenbestez, ez du deituak onarpen formalik burutu behar. Onartutzat hartzen da jaraunspena eta uko egin nahi izanez gero esanbidez adierazi beharko du deituak. Ez dago denbora-tarterik, beraz, oinordetzaren irekitzea, delazioa eta eskuratzearen artean. Une berean ematen dira hiru etapak, kontzepzio germaniarrean.

(2) **Kontzepzio erromatarra:** jaraunspena eskuratzeko, beharrezkoa da berau onartzea. Beraz, denbora-tarte bat egon daiteke delazioaren eta eskuratzearen artean. Bien bitartean ez dago oinordekorik, oinordeko izatera deitutako pertsonak baizik, eta, ondorioz, jaraunspena banatugabea dago (*iacente/yacente*). Deituek onartu edo zapuztu arte itxaron beharko da; legeak ez du, hasieratik, onarpena presumitzen, kontzepzio germaniarrean bezala.

Beraz, kontzepzio germaniarrean, zapuztea da garrantzitsuena, esanbidezkoa izan behar baitu, eta kontzepzio erromatarrean, berriz, onartzea da funtsezkoena, horrekin eskuratuko baita. Desberdintasun hori dela eta, zenbait berezitasun juridiko dituzte batak zein besteak:

(1) Preskripzio-epetegi dagokienez, epearen mende geratuko da zapuztea eredu germaniarrean, eta ez bada egikaritzen, preskribatu egingo da; eta, erromatarrean, berriz, onartzea geratuko da epearen mende.

(2) Jaraunseari dagokionez, deitua jaraunseletzat hartuko da eredu germaniarrean, zapuzten ez duen bitartean; erromatarrean, berriz, onartzeak zehaztuko du jaraunse izatea.

(3) Jaraunspenari buruzko egintzei dagokienez, deituak jaraunspena irekitzen den unetik jaraunspeneko ondasunen gainean egin dituen egintza guztiak jaraunse gisa egin ditu eredu germaniarrean; erromatarrean, berriz, jaraunspena onartu aurretik, baimena beharko du deituak egintzak egiteko.

Arazoa da erabakitzea Kode Zibilak ea zein sistema segitzen duen. Espainiako doktrinan, eztabaida luzea izan da arazo horren inguruan, Kodeak berak sistema bat edo bestea defendatzeko argudioak ematen baititu, printzipioz.

Tesi germaniarraren alde adierazten diren argudioak eta horien kritika:

(1) Kodeak, hainbat arauetan, jaraunse deitzen dio jaraunspenera deitua izan denari bakarrik, onartu arte itxaron gabe; beraz, pentsa daiteke jaraunspena eskuratutzat jotzen dela. Dena den, terminologian, zehatz-gabetasun asko ditu Kodeak (adb. 1002, 1006, 1007 art); esaterako, kausatzailea baino lehenago hil denari ere jaraunse deitzen dio 766. artikuluan. Ez da ba, argudio erabakiorra.

2) Onartzearen eta zapuztearen arauketa alderatuz gero, zapuzteak betekizun eta formalitate gehiago eskatzen ditu (garrantzia zapuzteari ematen zaio); beraz, badirudi jaraunspena eskuratutzat jotzen dela. Baina, zapuzteko formalitasun gehiago eskatzea normala da, mugak jarri behar zaizkiolako eskubideei uko egiteari.

(3) Kodeak ez du jasotzen jaraunspen banatugabearen (*herencia yacente*) arauketarik, eta hori beharrezkoa da onarpenaren zain egon beharra baldin badago. Hala ere, gerta daiteke arauketarik ez egotea Kode zibilean eta Prozedura Zibilari buruzko Legeko araudia erabili beharra, beste kasu batzuetan gertatzen den bezala, eta, gainera, onarpenak atzeraeraginkortasun efektua dauka Kode zibilean, beraz, denbora-tarte hori 'salbatua' geratzen da, nolabait.

(4) Kode Zibileko 661 artikulua zera dio: *los herederos suceden al difunto por el hecho sólo de su muerte en todos sus derechos y obligaciones*. Badirudi, beraz, eskuratzea automatikoki gertatzen dela. Baina, artikulua horrek fenomeno orokorra deskribatzen du, eta, horren ondoan, 989. artikulua lehentasuna du, eduki juridiko gehiagoz agertzen delako: *los efectos de la aceptación y de la repudiación se retrotraen siempre al momento de la muerte de la persona a quien se hereda*; alegia, atzeraeraginkortasuna prozesua ireki zeneraino hedatzen bada, ondoriozta daiteke bitartean ez dela jaraunspena eskuratu.

Bestalde, **honako argudio hauek ematen dira tesi erromatarraren alde:**

(1) Aurrekari historikoak kontzepzio erromatarraren aldekoak dira.

(2) Kodeak onartzeari buruzko araudia jasotzen du, eta kontzepzio germaniarrean, berez, ez legoke horren beharrik.

(3) Kode Zibileko 989. artikulua, lehen azaldu dugunez, oinordetza ireki den punturainoko atzeraeraginkortasuna ematen dio onarpenari, baina horren beharrik ez legoke tesi germaniarra onartuz gero.

(4) Kodeko 1005. artikulua *interpellatio in iure* delakoa arautzen du: interesdunek eska diezaiokete oinordetzara deitua izan denari adierazi dezan jaraunspena onartzen duen ala ez. Beraz, onartzeko adierazpena da oinordetza eskuratzeko Kodearen sistemaren ardatza.

(5) Kodeko 1006. artikulua ere kontzeptzio erromatarraren ikuspegitik bakarrik uler daiteke: oinordetza jaso arte, ezin da berau transmititu, hots, ezin da besterendu, *mortis causa* ez bada, deituak duen *ius delationis*-a.

(6) Bukatzeko, Kodeko 1016. artikulua preskripzio-epea jartzen dio onartzeko eskubideari.

Ondorioz, Kodeak kontzepzio erromatarrari jarraitzen dio eta jurisprudentziak ere hala ebatzi du; esaterako, AGE 1982/6/15 (RAJ 3426). Sistema espainiarrean, beraz, delazioak ez du onarpena ekartzen automatikoki. Deituak onartu behar du jaraunspena berau eskuratzeko, eta behin onartuta, atzeraerakinkortasunez, oinordetza ireki denetik onartu duela estimatzen da (KZeko 989. art).

Azkenik, jaraunspenaren *edukitza* eskuratzeari dagokionez, Kode Zibileko 440. artikulua arau berezia ezartzen du (*edukitza txit zibila*). Legearen aginduz eskuratutzat jotzen da edukitza, nahiz eta gauza eskuratu ez eta inork gauza beretzat hartzeko asmorik erakutsi ez. Hala, jaraunselek jaraunspena onartzen duenean, kausatzailearen edukitza oro eskuraten du automatikoki (*ipso iure*). Erregimena osatzeko, Kode Zibileko 442. artikulua ezarritako muga ere kontuan izan behar da: *El que suceda por título hereditario no sufrirá las consecuencias de una posesión viciosa de su causante, si no se demuestra que tenía conocimiento de los vicios que la afectaban; pero los efectos de la posesión de buena fe no le aprovecharán sino desde la fecha de la muerte del causante.*

AGE 1989/10/20 (RAJ 6949) : “Según se deduce del contexto del artículo 440 del Código Civil, al entenderse transmitida al heredero sin interrupción y desde el momento de la muerte del causante, es indudable que se les transmite, por ministerio de la ley, la posesión de los bienes hereditarios que ya venían poseyendo, aun sin necesidad de que hubiesen hecho acto material alguno, como consecuencia de la figura llamada **posesión civilísima** «*est etiam civilissima possessio quae ipso iure sine facto hominis transfertur*», aplicable sobre todo, a las adquisiciones por título hereditario, para

evitar solución de continuidad entre la posesión del «de cuius» y la del heredero, dado que en las transmisiones hereditarias el causante transfiere la posesión de los bienes al sucesor sin acto material alguno de ocupación por dicha consecuencia de ministerio de la ley, a causa de que considerada la herencia como una cosa común todos los particulares constituyen una sola personalidad, generando que la prescripción que pudiera haber ganado un copropietario o comunero aproveche a los demás, como lógica consecuencia del principio de que la posesión de los coherederos no es propia ni personal, de índole privativa, de cada uno de ellos, sino que cada cual posee en representación y en provecho de todos los demás coherederos, y por eso ninguno puede prescribir contra otros, en tanto no se acredite situación de intervención posesoria, es decir por carácter distinto del que provenga de la sucesión hereditaria”.

Jaraunstea edukitzaile bihurtzen denetik, edukitza babesteko interdikto arrunten babesa izango du; gainera, jaraunspena eskuratzeko interdikto bereziaren babesa izango du (PZLko 250.1.3, 266.4, 441.1 eta 447.2. artk.).

5.-Jaraunspen banatugabea (*herencia yacente*) eta jaraunspena administratzea

Kontzepzio germaniarrean, banatu gabeko jaraunspenik ez dago; aldiz, kontzepzio erromatarrean bai, deituak jaraunspena onartzen ez duen bitartean, hain zuzen, ordura arte ez baita eskuratu. Jaraunste izateko jaraunspena onartu beharra eskatzen den sistemetan gertatuko da egoera hori deituek onartzen ez duten bitartean. Norena da, orduan, jaraunspena osatzen duen ondarea, deituek onartu arte? Dagoeneko ez da kausatzailearena, ezta deituena ere, onartzen ez duten bitartean.

Kodeak ez du ez aipatzen ez arautzen egoera hori. Arau bakarrak adierazten du zeharka: *la prescripción produce sus efectos jurídicos a favor y en contra de la herencia antes de haber sido aceptada y durante el tiempo concedido para hacer inventario y para deliberar* (Kzeko 1934. art.). Prozedura Zibilari buruzko Legean ere aurreikusten da egoera hori: *mientras la herencia no haya sido aceptada por los herederos, el administrador de los bienes representará a la herencia (...) hasta que se haga la declaración de herederos* (PZLko 798. art.). Konkurtso Legeak ere zera dio: *el*

concurso de la herencia podrá declararse en tanto no haya sido aceptada pura y simplemente (Klko 1.2. art.).

Halaber, gerta daiteke jaraunspena banatu gabe egotea hipotesi ezberdinetan:

(1) **Borondatez**: deitua ezaguna da, baina oraindik ez du onartu, edo jaraunspena administraziopean dago: behin-behineko administraziopean edo, prozedura ireki bada, administrazio judizialpean.

(2) **Nahitaez**: jaraunspena ez dagoelako onartzeko egoeran. Esaterako, jaiotzekoa bada (Kzeko 965. art.), zehaztu arte (Kzeko 749 eta 751. artk.), deitua ezezaguna bada (Kzeko 750. art.), delazioa gertatzeko baldintzarik eskatzen bada (Kzeko 801. art.), hobetzeko ahalmena delegatu bada (Kzeko 831. art.) edo deliberatzeko eskubidea egikaritu bada (Kzeko 1010.2. art.). Kasu horietan guztietan, jaraunspena banatu gabe dago, baina behin-behineko egoeran, azken finean Estatua beti baitago deitua besterik ezean.

AGE 1990/5/7 (RAJ 3689): “La apertura de la sucesión de una persona se abre justamente en el momento de su muerte, en el cual su patrimonio se transmite en herencia yacente, que es aquel patrimonio relicto mientras se mantiene interinamente sin titular, y pasa a los herederos, con efectos desde el fallecimiento del causante, una vez determinado por medio de testamento, o en su defecto mediante la correspondiente declaración de herederos *ab intestato*”.

Egoera horietan sortzen den arazoa da zehaztea ondarearen titularra nor edo nortzuk diren. Jurisprudentziak, hasteko, esleitu gabeko jaraunspenak nortasun juridikorik ez duela ezartzen du (AGE 1982/9/20 [RAJ 4920], 1987/3/12 [RAJ 1435] eta 1994/1/31 [RAJ 643]). Dena den aitortzen zaio baduela nolabaiteko ‘nortasun juridiko berezia’, hain zuzen ere interes komunak elkartzen dituelako (AGE 1982/9/20 [RAJ 4920]: *masa o comunidad de interesados*; AGE 2000/4/11 [RAJ 2967] : *comunidad de intereses*). Horrela, behin-behineko egoera gisa eta helburu jakinetarako trataera bateratua ematen zaio esleitu gabeko jaraunspenari.

Jaraunspen banatugabea ADMINISTRATU egin behar da, beraz. Berau **administratzeko arduradunik ez badago**, arazoak sortzen dira:

(1) **Alderdi aktibotik**: egin daitezke kontserbazio-egintzak, eta mandaturik gabeko negozioak kudeatzeari buruzko arauak aplikatu.

(2) **Alderdi pasibotik:** badirudi gehiegizkoa dela ondare horren aurka joan behar dutenen gain administratzeko zeregina jartzea. Horregatik, jurisprudentziak onartu du jaraunspenera deituek legitimazio pasiboa dutela hartzekodunen erreklamazioen aurrean, nahiz ez jaraunsele ez ordezkari izan, eta nahiz jaraunspen horrek, pertsona ez denez, legitimazio pasiborik ez izan.

Administratzailearik badago, ez dago arazo berezirik. Berdin da administratzailea kausatzaileak berak izendatua izatea, horretarako gaitasuna baitu, edo legeak berak jarria izatea, gero ikusiko dugu zein suposamendutan. Gainera, ordenamenduak onartzen du jaraunspenera deituek badituztela hura administratzeko ahalmenak, nahiz eta oraindik jaraunspena onartu gabe izan; horretarako oinarri juridikoa Kode Zibileko 999.4. artikulua jartzen du. Bestalde, kausatzailearen ondareak, momentuz titularrik izan ez arren, badu alderdi gisa prozesuan parte hartzeko aukera (PZLko 6.1.4. eta 7.5. art.ak). Administratzailea, beraz, borondatez zein legez izendatu daiteke:

(1) **Borondatez:** administratze-lana egiteko pertsonarik dagoenean, epaileak ezin du ofizioz parte hartu, oinordekoak hor baitaude, bereziki, ezer babestu beharrik ez badago. Baina, norbaitek epailearengana jotzen badu arazoren batengatik, epaileak izendatutako administratzaileak hura baztertuko du. Gainera, analogiaz, Kodeko 1020. artikulua aplikatuko da edozein kasutan administrazioari buruzko erabakiak eskatzeko epaileari.

(2) **Legez:** dena den, Kodeak jaraunspena administratu beharra ere agintzen du zenbait kasu jakinetan: (a) testamentugileak baldintzapean jarri badu jaraunsele izatea (κzeko 801. eta hh); (b) jaiotzekorik balego (κzeko 965., 966. eta 967. art.ak); (c) inbentarioa egin bitartean eta jaraunspena onartu arte (κzeko 1020. art.); (d) izendatutako pertsona ezezaguna bada (κzeko 750. art.).

Praktikan eta normalean, jaraunspena administraziopean jartzen da jaraunspenari buruzko prozedura martxan jartzen badu jaraunseleak, ezkontideak, legatu-hartzaileak edo hartzekodunak. Prozedura Zibilar buruzko Legeak arautzen ditu prozedura horiek; han, oinordekoak nor diren erabakitzen da gehienetan, eta, horren ildoan, administratu eta kitatu ere egiten da jaraunspena (PZLko 782. art. eta hurrengoak.).

Laburtuz, gerta daiteke esleitu gabeko jaraunspena egotea eta hori bera administraziopean jartzea; edo jaraunspena administraziopean jartzea bestelako arrazoiak direla eta.

IV. IRAKURGAIAK

1. Bokazioa eta delazioa

DOMÍNGUEZ REYES, Juan Faustino (2000): “Vocación y delación de la herencia”, *Revista Critica De Derecho Inmobiliario*, 76. zb., 2279-2306.

FONT SEGURA, Albert (2000): “La sucesión hereditaria en Derecho interregional”, *Anuario De Derecho Civil*, 53. zb., 23-81.

SÁNCHEZ HERNÁNDEZ, Carmen (1996): “La *hereditas iacens*: intereses en juego y tráfico jurídico”, *Actualidad Civil*, xxxviii.

2. Eskuratzea

GALVÁN GALLEGOS, Ángela (2001): “La adquisición de la herencia: perspectiva fiscal y civil”, *Actualidad Civil*, xxiv.

V.-KOMENTATZEKO TESTUAK

(1) AKE 2001/9/17 (*EBO* urriak 19): (...) 4. Para determinar en este supuesto si el órgano judicial cumplió su deber constitucional de realizar los actos de constitución de la relación jurídico procesal respetando las exigencias que se derivan del art. 24.1 CE debemos tomar en consideración las circunstancias que concurrieron en ese caso concreto. La primera cuestión que debemos constatar es que la demanda no se dirigió personalmente contra la ahora recurrente en amparo, sino contra la herencia yacente y los herederos desconocidos e inciertos de doña Adelaida F. G. Como señalamos en la STC 109/1999, de 14 de junio, F. 2, en un supuesto similar en el que también la demanda se dirigía contra los herederos y no se les identificaba nominalmente, la designación innominada del demandado trasciende a la efectividad del emplazamiento, cualquiera que sea la forma en la que éste se realice, pues esa abstracta indicación no garantiza que el emplazamiento se haga a una persona concreta ni que, por tanto, esa persona pueda participar en el proceso.

También debe tenerse en cuenta que el emplazamiento no se efectuó en el domicilio que designó el entonces demandante en su escrito de demanda como último domicilio de la causante, sino que directamente se llevó a cabo el emplazamiento edictal. De igual modo debe tomarse en consideración que el demandante en aquel proceso solicitó al órgano judicial que, a efectos del emplazamiento

de la demandada, librara mandamiento al Notario de Gijón que se le indicaba, porque, según constaba en una certificación del Registro de Ultimas Voluntades, doña Adelaida F. G., el 18 de septiembre de 1973, había otorgado testamento ante ese Notario pero el órgano judicial, sin motivar su decisión, rechazó esta solicitud.

5. Atendiendo a las circunstancias señaladas, y de acuerdo con la doctrina constitucional expuesta, es claro que el órgano judicial acudió al emplazamiento edictal sin antes agotar otras modalidades de emplazamiento más respetuosas con el derecho a la defensa de los demandados en ese proceso. A pesar de que en el escrito de demanda se indicaba el último domicilio de la causante y de que asimismo se le solicitaba que dirigiera mandamiento al Notario de Gijón en el que, según la certificación expedida por el Registro de Ultimas Voluntades, otorgó testamento para que le remitiera copia del mismo, lo que le hubiera permitido conocer la existencia de posibles herederos y de su posible paradero, el órgano judicial emplazó directamente a la herencia yacente y a los herederos desconocidos e inciertos de la causante sin ni siquiera intentar la notificación en el último domicilio ésta. De tal modo, al no haber agotado el órgano judicial los medios normales a su alcance para asegurar, no sólo que los demandados en un proceso se encontraban identificados –lo que como se ha indicado, redundaba en la efectividad del emplazamiento–, sino que tampoco intentó su emplazamiento en el domicilio que constaba en la demanda, la actuación del Juzgado no puede considerarse acorde con el deber constitucional que se deriva del art. 24.1 CE.

(2) AGE 1982/9/20 [RAJ 4920]: Que según criterio generalmente seguido en la práctica y aceptado por la doctrina y la Jurisprudencia como adecuada solución a los problemas que plantea, la herencia en situación de yacente, puede figurar como término subjetivo de la relación jurídica-procesal y por lo tanto ocupar la posición de demandada, en cuanto masa o comunidad de interesados, en relación con el caudal hereditario, a la que, sin ser verdadera persona jurídica, se otorga transitoriamente y para fines limitados una consideración unitaria, según señaló la sentencia de 21 junio 1943, lo que conlleva la necesidad de la citación edictal de los desconocidos herederos, a no ser que la representación de aquélla haya sido otorgada al albacea por el testador (art. 901 del C. Civ.) o exista administrador -SS. 9 febrero 1970 y 14 mayo 1971-, como acontece en los supuestos contemplados por los arts. 1.020 y 1.026 de dicho Cuerpo legal o se haya promovido juicio sucesorio (arts. 1.008 y 1.098 de la L. E. Civ.).

Que en el caso presente la demanda ejecutiva ha sido interpuesta por la Caja Insular de Ahorros y Monte de Piedad de la Gran Canaria dirigiéndola en primer término contra «la herencia

yacente y demás desconocidos causahabientes de don José Miguel P. R.» y además contra don José Miguel P. L., en el preciso concepto de contratante fiador interviniente en la póliza de crédito constitutiva del título para la pretendida ejecución; en debida consonancia con lo cual la actora instó en el cuarto otrosí la «citación de remate a la herencia yacente» efectuándola «por medio de edictos de conformidad con lo establecido en el art. 1460 de la L. E. Civ.».

Que a la luz de tales antecedentes es manifiesto que no se trata de acción ejecutiva entablada contra uno de los coherederos como responsable solidario y por entero de las deudas del causante a tenor del art. 1.084 del C. Civ., sino de reclamación dirigida a la comunidad hereditaria, cuyo llamamiento al proceso por medio de edictos, accediendo a lo en tal sentido postulado en la demanda, acordó el Juzgado mediante auto de 2 diciembre 1980, pero no consta la realización de lo proveído acaso porque la citación interesada se creyó ociosa una vez que en el testamento abierto de 1.º abril 1971 don José F. R., después de legar a su esposa ahora recurrente doña María del Rosario L. G. «el usufructo universal y vitalicio de todos sus bienes, del que será detraída la cuota viudal usufructuaria», instituyó «por su único y universal de todos sus bienes, derechos y acciones, presentes y futuras en pleno dominio, a su indicado hijo José Miguel P. L.», lo que permitió a éste efectuar la comparecencia en las actuaciones «por sí y como heredero y para la herencia de don José P. R.», según manifiesta en su escrito de 3 marzo 1981.

Que el primer motivo del recurso, y en puridad el único relevante pues los otros tres son simple manifestación o aspecto de la omisión básica, se formula al amparo del número 1.º del art. 1693 de la Ley procesal y denuncia la violación de lo dispuesto en los arts. 1459 y 1460, en relación con el 270 y 266 y siguientes de la propia normativa; alegación que ha de prosperar, pues si a la falta de emplazamiento en la primera o segunda instancia de las personas que hubieran debido ser citadas para el juicio, con el quebrantamiento consiguiente de las formas esenciales, equivale la inexistencia de la citación de remate del recurrente -SS. de 8 junio 1965, 6 marzo 1975, 2 marzo 1982-, no puede dudarse que al haberse prescindido del llamamiento edictal solicitado por la entidad accionante y ordenado oportunamente por el Juez, se ocasionó vulneración trascendental de forma y el desconocimiento de un principio esencial del procedimiento (el de audiencia bilateral, conforme al brocardo *nemo inauditus damnari potest*), dificultando la intervención en el debate, por lo pronto, del cónyuge supérstite, heredero forzoso aunque su legítima haya sido pagada mediante legado, o de otros posibles interesados, tanto más que tampoco consta que el mencionado testamento rija la sucesión del causante y que si bien la viuda no puede ser condenada al pago del pasivo de la herencia y menos aún imponerle una responsabilidad *ultra vires*, es preciso que sea convocada al litigio en que se reclamen deudas contra el haber hereditario de su consorte, por tener un interés

directo en el mismo, al poder ver mermado el contenido de su cuota usufructuaria -S. de 28 octubre 1970-, lo que excluye la posibilidad de que el hijo -demandado *nominatim* en su concepto de fiador y no en otro- asuma válidamente por su unilateral manifestación referida la representación voluntaria de la herencia.

(3) AGE 1954/4/6 (RAJ 1551): Que el artículo 752 del Código Civil es de interpretación restrictiva por contener una disposición que limita la libertad de testar en que se inspira nuestra legislación civil, teniendo este artículo su antecedente, como ya se ha dicho, entre otras Sentencias de esta Sala en la de 25 de octubre de 1928 en la Ley Quince Título XX Libro X de la Novísima Recopilación, con la que se trata de evitar una posible sugestión o captación de voluntad dado el estado del testador, lo que lógicamente no puede realizarse cuando el testamento es anterior a la confesión; y como en el caso presente, según los hechos antes indicados que el Tribunal «a quo» tiene por ciertos, ninguno de los cuales ha sido impugnado en este recurso, don Ventura C. y L. otorgó su última voluntad dieciocho días antes de confesarse con el expresado sacerdote, sin que conste que con anterioridad fuera su director espiritual o le tratara, es manifiesto que no existe la menor prueba de que influyera de ningún modo en las disposiciones testamentarias del causante; sin que sean de aplicación para fundamentar la tesis del recurrente ninguna de las sentencias que a estos efectos cita, ni siquiera la de 29 de abril de 1873 en que se aplica la citada Ley Quince Título XX Libro X de la Novísima Recopilación, por ser distintas las circunstancias que concurrieron en el caso que se discutía en el juicio en que se dictó de las que se dan en el presente, pues en aquél, en la cláusula octava del testamento que se impugnaba, el sacerdote que confesó y administró los últimos Sacramentos a la testadora pocas horas después de otorgarlo, era el nombrado heredero universal por dicha señora de todos los bienes, derechos y acciones que le correspondían, para que vendidos invirtiese su producto en los objetos que reservadamente le tenía encomendado, instrucciones dadas con anterioridad que revelan las relaciones y trato que antes de llevarse a efecto su postrera confesión mediaban entre ellos; no pudiendo tampoco estimarse que el vínculo que une al indicado Capellán con el Asilo de Ancianos Pobres de Talavera de la Reina, en cuyas atenciones y necesidades han de emplearse los bienes dejados por don Ventura C. y L., conforme a lo dispuesto en su testamento, sea equivalente al que existe entre un Párroco y la Iglesia que regenta, ni que por la misión que desempeña en el Asilo ha de obtener un lucro u otra clase de beneficios con la herencia de que se trata, pues el minucioso y razonado examen que en la sentencia recurrida se hace de la forma y condiciones en que ejerce su sagrado ministerio, sin formar parte de la Comunidad Religiosa de las Hermanitas de los Pobres que lo rigen y asisten a los ancianos recogidos, ni de la laica que estos últimos constituyen, habiendo sido

nombrado y pudiendo ser separado de su cargo por el Arzobispo de Toledo, quien retribuye su función con los intereses de un capital constituido por la fundadora de esta Capellanía colativa y mutual que administra tan alta dignidad de la Iglesia, justifica cumplidamente que su función sacerdotal en el Asilo y las relaciones morales y económicas que con esa benéfica institución tiene no pueden equipararse a las existentes entre un Párroco y su Iglesia, como antes se ha dicho, o a las que unen a los que forman parte integrante de un cabildo, comunidad o instituto, procediendo por todo lo expuesto desestimar este primer motivo del recurso.